

HAUTAKETA PROZESUA: OHIKO PROZESUA. 2022KO URRIAREN 20KO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA. (2022ko ABENDUAREN 22ko EHAA)

SARRERA MOTA: OROKORRA

DEIALDI ESPEZIFIKOA: GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA – KAZETARITZA (Ohiko prozesua)

OPOSIZIO FASEAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHANAREN ERABAKIA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoaren 4. puntuan jasotakoarekin bat oposizio fasaeran ariketak zuzendu eta gero, aipatutako hautaketa prozesuaren epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA. Azterketako 99. galderari dagokion erantzuna zuzentzea, honako hau ohartarazita: akats baten ondorioz, erantzun zuzen gisa D) jarri zela, C) erantzuna benetan zuzena izanik, eta zuzenketa horrekin bat etorriz, gainditutako behin-behineko zerrendak egitea, kalifikazioen arabera, puntuazio-ordenaren arabera.

BIGARRENA. – Oposizio fasea gainditu dutenen behin-behineko zerrendak puntuazio-hurrenkeraren arabera, EHUko lan-eskaintzen atarian (<https://www.ehu.es/eu/web/azp/ohioko-prozesua-funtzionarioak>) argitaratzea, hautagaiek kontsulta ditzaten.

HIRUGARRENA. – Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezten, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gainditutako izangaiek lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioen bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

LAUGARRENA. - Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar izango da. (<https://egoitza.ehu.es/eu/registroelectronico>) [AZPkoen 2022ko LEPa. Dokumentazioa aurkeztea](#) prozedura aukeratuz. Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Alegazio-formularioa eta, hala badagokio, merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa posta-bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUko gerenteari zuzendu beharko diote eskaria eta 10.2 oinarrian adierazitako helbidera bidali, eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).

Leioan,

Epaimahaiko idazkaria